


Azterketa 2. partziala: Informatika I

1. (1.5 puntu) Ondorengo VisualBasic-eko interfazea emanik:



Ondorengo portaera duen programa inplementatu ezazu: *Exekutatu* botoia aukeratzean *Text1* eta *Text2* testu-kutxetan dauden zenbakien batuketa egin behar du. Eraitza *Picture1* izeneko objektuan emanez. *Ezabatu* botoia aukeratzean, bi testu-kutxak eta *Picture1* hutsik utzi behar ditu. Azkenik, *Irten* botoia aukeratzean programak amaitu egin behar du. Erabiltzaileak testu-kutxetan sartutako balioak zenbakiak direla suposatuko dugu.

2. (3 puntu) Trafikoko zuzendaritzan asteroko isunen kontrola eraman nahi dute. Horretarako programa bat **diseinatu eta inplementatu** aste bateko isunen datuak aztertuz, estatistika batzuk ateratzen dituen. Sartzen diren datuak arau-hauste mota eta pagatu beharreko kantitatea dira. Datu-sarreraren amaiera isunaren arau-haustea 0 eta pagatu beharreko kantitatea 0 direnean izango da. Estatistikak, berriz, arau hauste bakoitzeko jarritako isun kopurua eta bildutako diru-kantitateak izango dira:

Adibidez:

Arau-haustea	Kantitatea
1	30
2	200
3	350
2	250
0	0

Azalpena:

Arau-hauste motak:
1) arina
2) larria
3) oso larria

Estatistikak:

- Arau-hauste arina: 1	Kantitatea: 30
- Arau-hauste larria: 2	Kantitatea: 450
- Arau-hauste oso larria: 1	Kantitatea: 350

Datuak sartzean erroreren bat gertatzen bada mezu bat eman.

Azterketa 2. partziala: Informatika I

3. **(5.5 puntu)** Supermerkatu batean 100 produktu saltzen dira (produktu bakoitzaren kodea 1-etik 100-rako zenbakiak izanik). Produktu bakoitzarengatik bere prezioa gordetzen da. Bestalde, badakigu 200 bezerok fidelitate txartela dutela (fidelitate txartelaren zenbakia 1-tik 200-rakoa da). Fidelitate txartelean bezeroak orain arte egindako gastu kantitatea gordetzen da. Programak ondorengo eragiketak egiteko gaitasuna edukitzea nahi dugu:
- Produktuen prezioak eguneratu
 - Bezero baten erosketak bere fidelitate txartelean erregistratzea eta bere fakturaren totala zenbat den esatea. Kontutan izanik, %2-ko deskontua dutela 300 euro baino gehiago gastatuta daramatenak. Deskontua egin bazaio 300 euro kendu fidelitate txarteletik.
 - Kalkulatu bezero guztiek fidelitate txartelean duten batezbestekoa eta esan zenbat bezerok duten batezbestekoa baino kantitate handiagoko gastua.

Programa nagusian behar diren aldagaiak inplementatu eta aurreko hiru aukerak egiten dituzten prozedurak inplementatu.

Prozedura bakoitzaren portaera erabiltzailearekiko ondorengoa da:

a) Aukera

- produktuaren prezioa: **100**
- produktuaren prezioa: **50**
- produktuaren prezioa: **6.5**
-

b) Aukera

Bezeroaren fidelitate-txartel zenbakia: **5**

Egindako erosketak: (gutxienez erosketa bat)

Produktu- kodea: 3	kantitatea: 2
Produktu-kodea: 1	kantitatea: 1
Produktu-kodea: 2	kantitatea: 3
Produktu-kodea: 0	kantitatea: 0

Faktura totala:

- 219.5 euro** (Adib: Hasieran txartelean: 50 € balitu, orain: 269.5 €)
- 219.5 – 4.39 = 215.11 euro** (Hasieran txartelean: 100 € balitu, orain: 19.5 €)

d) Aukera

Batezbestekoa: **130**

Batezbestekoa baino gastu handiago duten bezero kopurua: **100**